

Motibatze
eskutitza

XIII.

mendean jada aipatzen ziren Gaztela Bizkaiko portuekin lotzen zuten bideak. Halaber, nik gogoan ditut, ardo eta arrain ibilbideari dagokionez gure zaharrei haurtzaroan entzundako kondairak. Bandolero, lapur zein korsarioen gotorleku behin baino gehiagotan izan ziren toki horienak, edota azkeneko mendeetan, inguruetan altzurtu izan diren guda lubakien ingurukoak, hain zuzen. Txikitako bizitokiak, eman dizkit, beraz, bere kokapen geografikoaren arrazoiz, izaeran aparteko ezaugarriak.

Gizakiok,

bestelako lurralde eta tokien inguruan daukagun pertzepzioa ezbardina izan liteke. Funtsean, zehatzago adierazita, ezberdina dela esan ahalko genuke, bertatik baitator norbanakoa elkarrengandik bereizten duen arrazoeitako bat. Bertan ezkututzen da gizateriaren aberastasuna, hala nola, baita bere gainbehera izan litekeena ere, gizakiek amalurra interpretatzeko garatu izan duten ahalmenean hain zuzen.

Arrazoiak

edonolakoak direla ere, beste herrialde bat bizitokizat hartu duen gizaki ororentzat, batez ere deserriari aurre egiteko, bizitoki berri horrek gorpuzten duen ingurugiroa geldo behatu eta historikoki egin ahal izan duen bidaia interpretatzea lagungarria dela deritzot.

Niri

dagokidanez, behin hizkuntzaren muga gaindituta, norabide horretara bideratu izan dut nire gogoak. Horra, adibidez arkeologia ikasten hastearren arrazoietakoa bat. Lurralde honen ezaugarriak bertan bizi eta bizi diren gizakiengan izan duen eragina hobeto ulertu eta interpretatzeko helburu nagusiarekin.

Beraz,

proiektu honen partaide izateak, helburu horiek betetzen jarraitzeko aukera paregabeak eskaintzen dizkit, bide batez errealitate bihurtzen jarraitzen duen ametsari bultzada emanaz.